

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nazioartekotze II. egunean, hogei bat enpresa txinatarrek Nafarroako enpresekin negozio-aukera berriak bilatuko dituzte

*Urriaren 24an, Baluartean, merkatu txinatarren hainbat ezaugarri aztertuko dira, merkataritza elektronikoko plataformak, kulturarteko negoziazioa eta jabetza intelektuala kasu*

Osteguna, 2018.eko urriak 4

Nafarroako Gobernuak urriaren 24rako Nazioartekotze II. eguna -Nafarroa Gansu Foroa [II Día de la Internacionalización – Foro Navarra Gansu](#) antolatu du. Enpresa eta erakunde txinatarrek bertan izango dira, eta merkatu txinatarrean interesa duten Nafarroako enpresek izena eman dezakete honezkeror. Hain zuzen, horixe da edizio berriaren nobedaderik garrantzitsuen [a la del año pasado](#), hots, enpresa txinatarrek Nafarroako Gansu Foroan Nafarroako enpresekin lankidetzarako aukera berriak bilatuko dituztela.

Jardunaldiari irekiera instituzionala emango zaio eta kide hauek parte hartuko dute: Manu Ayerdi lehendakariordeak, David Navarro Casa Asiako zuzendari nagusiak, Joseba Asirón Iruñeko alkateak, eta Shang Xunwu Txinako Gansu probintziako lehendakariordeak. Ondoren, Carlos Caballerok eta 2 Open enpresako Xiaochen Cao-k (Espainiako marketin digitaleko konpainiarik handienaren ordezkaria Txinan), Txinako estrategia digitala eta merkataritza elektronikoko aukerak xehakatuko dituzte. Bestalde, Amadeo Jensana jaunak, Casa Asiaren Programa Ekonomikoen zuzendariak, Txinaren kulturarteko negoziatioari buruz hitz egingo du, eta Andrés Herrera jaunak, Herrera Zhang Consultants-en bazkide-zuzendariak, ziklo txinatar berria eta Nafarroako UTEeentzako negozio-aukera berriak azalduko ditu.

Goizeko programazioa bi mahai-inguruekin osatuko da: batek Txinako merkataritza elektronikoko plataformak izango ditu mintzagai, eta



Jardunaldia iragartzen duen kartelak.

besteak jabetza intelektuala eta beste aspektu legal batzuk. Aipatu behar da bertaratzen direnek hizlariekin arratsaldean elkarrizketa laburra egiteko aukera daukatela.

Jardunaldian, Manu Ayerdi jaunak Garapen Ekonomikoko lehendakariordeak saria banatuko die 2017an ohiko esportatzaile bihurtu diren Nafarroako enpresei (lau urtez jarraian esportatu dutenei).

### **Nafarroa Gansu Foroa**

Arratsaldean, Nafarroa Gansu Foroaren txanda izango da, eta erakundeek zein enpresek parte hartuko dute. Batetik, sektore ezberdinetako hogeita bat enpresa txinatar egongo dira, Nafarroako enpresekin merkataritza-aukera berriak bilatzeko asmoz. Nafarroako enpresek inskripzioa egitean [inscripción](#) adierazi behar dute enpresa txinatarrekin biltzeko interesa dutela.

Nafarroa Gansu Foroan, Nafarroako Hezkuntza, Kultura eta Enpresa Saitetako ordezkariak beren Gansuko homologoekin enpresa-bilerak egingo dituzte. Iruñeko Udalaren eta Jiayuguan hiriburu txinatarraren ordezkarien arteko bilera ere aurreikusita dago.